
KULTURA-OHITUREI, -PRAKTIKEI ETA -KONTSUMOARI
BURUZKO ESTATISTIKA 2007-2008

METODOLOGIA

1. GALDEKETAREN HELBURUAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian bizi diren 15 urtetik gorako biztanleen egoera aztertzea da *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkestaren* helburu orokorra, kulturarekin, oro har, eta euskal kulturarekin, bereziki, lotutako haien ohiturei eta praktikei buruzko argazkia lortzeko, eta parte-hartzeari, eskaerei, jarrerei eta iritziei buruzko informazioa izateko.

Azterlan hau beharrezko urratsa da kulturaren alorrean Euskal Herri osoko informazio eguneratua izan nahi badugu. Horretarako, alderaketak egiten eta erabakiak hartzen laguntzeko informazio-bilketako metodo estandar bat sortu behar da, hartara kulturari buruzko analisisian eta hausnarketan elementu objektiboak sartzeko.

2. IKERLANAREN XEDE-UNITATEA

EAEn, Nafarroako Foru Komunitatean eta Ipar Euskal Herrian bizi diren hamabost urtetik gorako pertsonak osatzen dute ikerlanaren xede-unitatea.

3. IKERLANAREN EREMUA

Geografia-eremua

Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herria barne hartzen ditu inkestaren eremu geografikoak, eta datu-bilketa lurralde historikoen (EAEn kasuan), hiriburuen eta udalerrien tamainaren arabera egituratu eta bereizi da.

Biztanleria-eremua

Aipatutako geografia-eremuetako familia-etxeetan bizi diren eta hamabost urte baino gehiago dituzten pertsonak dira ikerlanaren xede-taldea.

Denbora-eremua

Datu-bilketa 2007ko abenduan hasi zen, eta 2008ko martxoa bitarte iraun zuen. Datuen erreferentzia-aldia 2007-2008 da, *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari*

buruzko inkestak landa-lana hasi aurreko hilabeteko, hiruhilekoko edo urteko praktika kulturalak aztertzen ditu eta. Horiek dira sarrien erabilitako epeak.

4. GALDEKETAREN EDUKIAK

Galdeketak eduki hauek ditu:

- Itaundutako pertsonaren profila
- Etxeetako ekipamendu kulturalak
- Kultura-jarduerekiko interes-maila orokorra
- Liburuak, egunkariak eta aldizkariak irakurri eta erosteko ohiturak
- Liburutegietara/mediateketara zenbatean behin joaten den jendea
- Museoetara eta arte-/erakusketa-zentroetara zenbatean behin joaten den jendea
- Zenbatean behin entzuten eta erosten duen musika jendeak, eta zenbat kontzertutara joaten den
- Ikus-entzunezkoak (zenbat orduz ikusten den telebista eta entzuten den irratia)
- Zenbatean behin joaten den jendea zinemara, eta ikusten dituen bideoak edo DVDak
- Arte eszenikoak (antzerki-, lirika-, dantza- eta bertso-emanaldietara zenbatean behin joaten den jendea)
- amateur-mailako jarduera kulturalak
- Interneten erabilera kulturaren alorrean

5. KONTZEPTU NAGUSIAK

Galdeketaren xehetasun-maila handia da. Nolanahi dela ere funtsezko hiru kontzeptu bereizten dira, galdeketak aztertzen dituen azpimailetako bakoitzean zeharka erabiltzen direnak. Hauek dira:

- **INTERES-MAILA:** inkesta erantzun duenak jarduera kultural zehatz batzuekiko duen zaletasuna neurtzen du. Informazioa ahal den modurik zehatzenean jasotzeko, 0-10 bitarteko eskala bat aplikatu da galdetegian.
- **OHITURA:** inkesta erantzun dutenek zenbait jarduera kulturekiko duten portaera orokorra islatzen du.

- **PRAKTIKA/BERTARATZEA:** kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea —jarduera hori zenbatetan egin duten edo zenbat denbora eskaini dioten— neurtzen ditu, denboraldi zehatz batean (adibidez, azken hilabeteetan, hiruhilekoan edo urtean).

6. ALDAGAI NAGUSIAK

Irakurketa eta liburutegiak

Liburu-irakurketari dagokionez, lanbidearekin edo ikasketekin lotutako irakurketa eta aisialdiarekin lotutakoa bereizi dira.

- Ohiko liburu-irakurleak: azken hilabeteetan aisialdiarekin lotutako liburuak irakurri dituztenak.
- Liburu-erosleak: azken hiru hilabeteetan libururen bat irakurri duten eta denboraldi horretan libururen bat irakurri dutenak.
- Ohiko egunkari-irakurleak: astean hiruzpalau egunetan, ia egunero edo egunero egunkariak irakurtzen dituztenak.
- Ohiko aldizkari-irakurleak: gutxienez astean behin aldizkariren bat irakurtzen dutenak.
- Liburutegietara joan ohi direnak: azken hilabeteetan liburutegira joan direnak.

Museoak eta arte-zentroak

- joateko ohitura dutenak: azken hilabeteetan museoetara/arte-galerietara/erakusketetara joan direnak.

Musika

- musika entzuteko ohitura dutenak: egunero edo ia egunero edo astero musika entzuten dutenak.

- musika erosteko ohitura dutenak: azken hiruhilekoan musika erosi dutenak.
- Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak: azken hiruhilekoan musika-kontzertu batera joan direnak.

Ikus-entzunezkoak

- Telebista ikusteko ohitura dutenak: telebista ikusi ohi dutela diotenak.
- irratia entzuteko ohitura dutenak: irratia entzun ohi dutela diotenak.

Zinema

- Zinemara joateko ohitura dutenak: azken hiruhilekoan zinemara joan direnak.
- Zinea beste formatu batzuetan kontsumitzen dutenak: egunero edo ia egunero, astean zenbaitetan, asteburuetan, hilean zenbaitetan, edo maiztasun txikiagoarekin zinea beste formatu batzuetan kontsumitzen dutenak.

Arte eszenikoak eta bertsolaritza

- Antzerki-, lirika- edo dantza-emanaldietara joateko ohitura dutenak: azken hiruhilekoan antzerki/lirika/dantza-emanaldiren batera joan direnak.
- Bertsolarien emanaldietara joateko ohitura dutenak: azken hiruhilekoan bertsolarien emanaldietara joan diren herritar elebidunak.

7. SAILKAPENAREN EZAUGARRIAK

Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkestak Euskal Herria osoko informazioa jasoko du. Laginak banatzeko zehaztasuna handia izan da, eta lurralde historikoen edo probintzien arabera, udalerrien tamainaren arabera, hiriburuak bereiziz eta generoaren, adinaren eta hizkuntza-gaitasunaren arabera banatu dira. Informazioa sakon eta talde bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara egokituta aztertzeo aukera ematen dute aldagai argitzaile horiek.

Bestalde, gai-alorka edo sektoreka egituratuta dago informazioa: irakurketa eta liburua, ikus-entzunezkoa, arte eszenikoak, musika...

8. LAGINAREN DISEINUA

Kulturaren alorreko ohituren, praktiken eta kontsumoaren estatistika diseinatzean, Eurostatek —jarduera kulturaletako parte hartzera zuzendutako Task force 3n, zehazki— finkatutako irizpideei jarraitu diegunez, alderagarritasuna bermaturik dago. Behatokiak aztertutakoen antzeko beste inkesta batzuek ere —esate baterako, Kultura Ministerioak edo Idescatek sustaturikoek— irizpide horiei jarraitzen diete. Horri esker, alderatzeko aukerak ugaritu egiten dira.

Hori guztia osatzeko, kulturaren alorreko zenbait aditurekin egiaztatu zen diseinua, eta aurre-test bat egin zen, bideragarritasuna eta eragiketaren konparagarritasuna bermatze aldera.

a. Laginketa-mota

Inkesta egiteko, etapa anitzeko laginketa geruzatua erabili da. Honetan datza:

- Lehenbizi, etxebizitza aukeratzen da, lurraldearen, eskualdearen eta udalerraren tamainaren arabera.
- Bigarrenik, pertsona aukeratzen da, etxebizitza horren barruan, generoaren, adinaren eta hizkuntza-gaitasunaren (elebiduna edo elebakarra) arabera. Euskaraz ongi edo oso ongi hitz egiten eta ulertzen duela dioen pertsona hartzen da elebiduntzat.

b. Laginaren tamaina

EAEko 3.950 inkestak, Nafarroako Foru Komunitateko 1.350ek eta Iparraldeko 1.300ek osatzen dute lagina.

c. Estratifikazioa

Laginari buruzko oharpen horietan oinarrituta, beraz, aldagai eta geruza hauei lotzen zaie diseinatutako lagina:

- Bizilekua aldagaiari dagokionez, eta lurraldeak alde batera utzita, udalerrien tamaina hartu da kontuan, bost geruza hauetan banakatuta: hiriburuak, 50.001-100.000 biztanle artekoak, 25.001-50.000 biztanle artekoak, 10.001-25.000 biztanle artekoak eta 10.000 biztanle baino gutxiagoak.
- Adinaren aldagaia kategoriatan sailkatu da: 15-24 urte, 25-34 urte, 35-44 urte, 45-54 urte, 55-64 urte eta 64 urte baino gehiago.
- Hizkuntza-gaitasuna: elebiduna edo elebakarra

d. Laginaren hautaketa

Inkestatu behar den pertsona zuzen hautatzeko laginaren diseinuak eskaintzen dituen ezaugarri nagusiak alderdi hauekin daude lotuta:

- Informazio-bilketaren xede-biztanleria 15 urte edo gehiago dituzten pertsonak dira.
- Informazio-bilketaren geografia-eremua geruzetan banatzeko lehenengo irizpidea lurraldeak dira; bigarren irizpidea, berriz, udalerrien tamaina.
- Informazio-bilketa banakako elkarrizketaren bidez egingo da, galdeketa egituratua eta itxia erabiliz.
- Laginaren banaketa adinaren, sexuaren, hizkuntza-gaitasunaren eta bizilekuaren arabera da.
- Laginaren hautaketa ausaz egingo da, eta sexuaren, adinaren eta hizkuntza-gaitasunaren kuoten arabera aukeratuko dira etxe bakoitzean elkarrizketatu behar diren pertsonak.

Azkenik, etxebizitzaren ausazko hautaketarako Infobel softwarea hartu da oinarritzat, eta, Iparraldeari dagokionez, eskura zeuden telefono-direktorioak, jarduera-protokolo zehatz bati jarraiki.

e. Zenbatesleak

Aztergai dugun X ezaugarriaren kalkulu osoa egiteko, zenbatesle hauek zehaztu dira:

$$[\hat{X} = \sum_{j=1}^m \sum_{i=1}^{n_j} w_{ij} x_{ij}]$$

non

- m , laginaren geruza-kopurua baita
- n_i , i geruzakoak diren laginketa-unitateen kopurua baita
- w_{ij} , j geruzaren barruan i laginketa-unitateari ezarritako jasotzailea baita.

Honela zehazten da:

$$w_{ij} = \frac{N_j}{n_j} \quad j = 1, \dots, n_i \text{ denean, non,}$$

N_j , j geruzakoak diren populazio-unitateen kopurua baita

n_j , j geruzakoak diren laginketa-unitateen kopurua baita

f. Laginketa-erroreak

Hona laginketa-erroreen goiko kotaren zenbatespena formularen arabera planteatutako geruzapen- eta gurutzaketa-aldagaiantzat, % 95eko konfiantza-mailarako eta indeterminazio handieneko suposizio pean ($p=q=\% 50$):

$$Errore \% = \pm \sqrt{\frac{1}{n} \cdot \frac{N-n}{N-1}} \cdot 100$$

9. DATUEN BILKETA ETA TRATAMENDUA

a. Metodoa

Informazioa biltzeko CATI elkarrizketaren metodoa, hau da, ordenagailuz lagundutako telefonozko elkarrizketa, erabili da. Jasotako erantzunen arabera galdetegiko grafoa kontrolatzea eta elkarrizketan antzeman diren eta inkestariak aise zuzen ditzakeen erroreak zuzentzen laguntzen du CATI sistemak. Era berean, informazioa bildu ahala grabatzeko aukera ematen du.

b. Galdeketa

Hortaz, CATI euskarrian diseinatu ziren galdera-sortak; gero, euskarri horretan, kuotak edo balio teorikoak finkatu ziren elkarrizketak egin ahala kuotak betetzen ziren egiazta zezan sistemak. Horrela, galdeketa osatutakoan sistemak abisua igortzen zuen, eta betetako kuotei zegozkien elkarrizketa gehiago grabatzea galarazten.

c. Landa-lanaren antolaketa

2007ko abenduan hasi zen lana, eta 2008ko martxoan amaitu zen. Telefono bidez bildutako informazioa informatizatu, grabatu eta baliozkotu egin da, oso-osorik eta paraleloan, hau da, elkarrizketa egin ahala.

Jaso beharreko erantzun-kopurua aurreikusitako epean biltzearen, inkestari bakoitzak eta guztiek aplikazio informatikoan sartu eta bete beharreko kontrol-sorta bat ezarria zuen lan-sistemak. Egindako dei bakoitzeko izandako gorabeherari buruzko txosten bat eskuratzeko aukera du CATI aplikazioak.

Informazioa bildu ondoren, datu-base osoaren baliozkotze sistematikoa, edo **azken baliozkotzea**, egin da, izan zitezkeen erroreak edo beste gorabehera batzuk antzemateko eta zuzentzeko, *on going* egindako baliozkotzeez hala nola CATI programaren garapenak barne hartzen dituen barne-kontrolaz gain.

Bigarrenik, **inkestaturako lagina aztergai den eremua zabaltzeko eta ustiatzeko** behar ziren zeregin guztiak egin dira. Emaitzen kalkuluak, jakina, erabilitako geruzapena hartzen du kontuan eta aztergai den populazioarekiko (udal-eremua, sexua, adin-geruza) laginaren garrantziaren arabera aztertzen ditu.

Aipatutako geruza horiek zehazten dituzten aldagaiak erabiliz, gorapen-faktoreak eta galdetegietan jasota dauden zutabe-kodeak kalkulatu dira haietako bakoitzarentzat.

EAEko kultura-ohiturak 2007tik jasotako lagina **zabaltzeari** dagokionez, neurketa-aldagai hauek hartu dira, bakoitza bere kategoriekin:

- Sexua: gizonezkoak eta emakumezkoak kategoriekin.
- Adina: populazioa sei adin-tartetan banatu da: 15-24, 25-34, 35-44, 45-54, 55-64 eta 64 urte baino gehiago.
- Lurraldea
- Bizi den udalerraren tamaina edo biztanle-kopurua: hiriburuak, 50.001-100.000 biztanle artekoak, 25.001-50.000 biztanle artekoak, 10.001-25.000 biztanle artekoak eta 10.000 biztanle baino gutxiagokoak.
- Hizkuntza-gaitasuna (elebiduna eta elebakarra).
- Zabalpenaren aldagai zuzentzaile gisara, biztanle elebidunak eta elebakarrak ere kontuan hartzen dira 10.000 biztanle baino gehiago dituen udalerrri bakoitzean, eta, eskualde-mailan, udalerrri txikienetan.

Azkenik, **ustiapenari** dagokionez, zenbait gurutzaketa egin dira aztertzen diren aldagai nagusien eta galdetegiko galdera bakoitzaren artean:

- Sexua: gizonezkoak eta emakumezkoak kategoriekin.
- Adina: populazioa sei adin-tartetan banatu da: 15-24 urte, 25-34 urte, 35-44 urte, 45-54 urte, 55-64 urte eta 64 urte baino gehiago.
- Hizkuntza-gaitasuna (elebiduna eta elebakarra).
- Lurraldea
- Bizi den udalerraren tamaina edo biztanle-kopurua: hiriburuak, 50.001-100.000 biztanle artekoak, 25.001-50.000 biztanle artekoak, 10.001-25.000 biztanle artekoak eta 10.000 biztanle baino gutxiagokoak.
- Amaitutako ikasketen maila: maila hauetan sailkatuta: ikasketarik gabe/lehen ikasketak amaitu gabe, lehen ikasketak, batxilergoa/bigarren hezkuntza/lanbide-heziketa, unibertsitateko maila ertaineko ikasketak eta unibertsitateko goi-mailako ikasketak.
- Familia-unitatearen diru-sarrera gordinak: maila hauek berezi dira: 9.000 € baino gutxiago, 9.000-27.000 € bitarte, 27.001-54.000 € bitarte, 54.000 € baino gehiago eta ED/EDE.
- Lan-egoera: aldagai horri dagokionez bi kategoria-mota hauek hartu dira kontuan:

- Zuzenean, galdetegian jasotako informaziotik: 1, lanean; 2, langabezian, lan egin izan du; 3, langabezian, lehenengo lanaren bila; 4, jubilatua edo lanetik erretiratua/pentsioduna; 5. ezindu iraunkorra; 6, ikaslea (ez da lanean ari); 7, etxeko lanetan aritzen dena; 8, beste batzuk.
- Kategoriak beste era batera biltzetik: 1, lanean; 2, Langabezian; 3, jubilatua/erretiratua/pentsioduna/ezindu iraunkorra; 4, ikaslea (ez da lanean ari), eta 5, etxeko lanetan aritzen dena

10. EMAITZEN HEDAPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak zenbait hedabide eta euskarri ditu eragiketaren emaitzak ezagutzera emateko. Azterlanaren emaitza garrantzitsuenak biltzen dituen *Kultura Ohiturei, Praktikei eta Kontsumoari buruzko Estatistika 2007-2008* argitalpen monografikoarekin hasiera eman zaio Kulturaren Euskal Behatokiko *Estatistiken eta Azterlanen Bildumari*. Lau liburukik osatzen dute bilduma: Euskal Autonomia Erkidegoari, Nafarroako Foru Komunitateari, Ipar Euskal Herriari eta Euskal Herri osoari dagozkienak.

Kultura 08 urtekarian ikerketaren emaitza nagusien balorazio-azterketa ere egingo da. Bestalde, azterlanaren datu nagusiak ezagutzera emango ditu *Kulturkaria* buletin elektronikoak, informazio-flash laburren bidez. Horretaz gain, estatistika-taulak argitaratuko dira web –orrian, eta datu-kontsulta dinamikoak egiteko aukera izango da. Bukatzeko, hedabideen aurrean aurkeztu da jada ikerketa. Aurkezpen horren sendogarri, euskal kulturako sektore eta eragileen aurrean aurkezpen espezifikoak egingo dira.